

EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Eva Blanco de Angulok, EH BILDU taldeko legebiltzarkideak eta bozeramaile-ordeak, ondorengo **LEGEZ BESTEKO PROPOSAMEN** hau aurkezten du, **osoko bilkuran** eztabaidatu dadin, “Etixerik gabeko pertsonen egoera errotik aldatzeko estrategia integrala eta horren euskarri den Gizarteratze Aktiboko Plana berehala Legebiltzarrera ekartzeari buruz”. Horretarako, indarrean den Erregelamenduaz baliatzen da.

ZIOA:

Gizarte bazterkeriaren aurpegi gordin eta gogorrenetarikoa etxerik gabeko pertsonena da, ezbairik gabe. Krisiaren ondorio zuzenak era lazgarrian pairatzen ari diren pertsona horien bizimoduak gizartean bere osotasunean hedatzen ari den prekarizazioaren alde muturrekoena islatzen du. Eta egoera bere horretan mantentzen ari da, azken ikerketak baieztatzen ari diren bezala. Izan ere, Araba, Bizkai eta Gipuzkoan, gutxienez, 1.836 pertsona daude kalean edo gizarte zerbitzuen aterpetxe, egoitza eta zerbitzuetan. Gizonak dira gehienak, baina Denok bizilekua izatearen eta etxegabekoen aldeko Plataforma Beste Bik baieztatu duen bezala, emakumeen kopurua handitzen ari da, nabarmen. Adinbageak %7,3 dira.

Horren aurrean beharrezkoa da neurriak hartzea, era koordinatu eta integral batean. Horretarako, eragileek behin eta berriz nabarmendu duten bezala, estrategia integrala falta da, gizarteratzeko plan osoan txertatuko dena.

Ildo horretatik, beharrezkoa da gogoratzea Legebiltzarrak 2014ko azaroaren 7an “Langabeziari eta pobrezari aurre egiteko Jaurlaritzak garatu beharreko estrategia integralari buruz”-ko eztabaida monografikoan onartutako ebazpenak, EH Bilduren ekimenez, eta Jaurlaritza sostengatzen duen alderdiarekin adostutakoak:

“Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio, gizarte babesaren euskal sistema osatze aldera, urte beteko epean, etxerik gabeko pertsonen egoera errotik aldatzeko estrategia integrala landu eta Legebiltzarrera ekar dezala, gizarte eragileekin elkarlanean eginda”.

“Legebiltzarrak Jauraritzari eskatzen dio 2015eko lehenengo hiruhilekoan behar-beharrezkoa den Gizarteratze Aktiboko Plan eta estrategia berria Legebiltzarrera ekar dezala, gizarte eragileekin eta sindikatuekin elkarlanean eginda, gizarte babesaren euskal sistema osatze aldera”.

Hori horrela izanik, hurrengo legez besteko proposamen hau aurkezten du.

LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Legebiltzarrak Jauraritzari eskatzen dio azaroaren 7an “Langabeziari eta pobrezia aurre egiteko Jauraritzak garatu beharreko estrategia integralari buruz”-ko eztabaida monografikoan onartutako ebazpenak, etxerik gabeko pertsonen egoera errotik aldatzeko estrategia integrala eta Gizarteratze Aktiboko Plan eta estrategia berria, 2015. urtea amaitu baino lehenago Legebiltzarrera ekar ditzala.

Gasteizen, 2015eko azaroaren 23an

Eva Blanco de Angulo

EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaile-ordea



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**

**ITZULPEN ZERBITZUA
SERVICIO DE TRADUCCIONES**

34243

A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Eva Blanco de Angulo, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente proposición no de ley, para su debate en pleno, relativa a la remisión inmediata al Parlamento de la estrategia integral para cambiar de raíz la situación de las personas sin hogar y del plan de inclusión activa que le sirve de soporte.

JUSTIFICACIÓN

Sin duda alguna, la cara más cruda y cruel de la exclusión social es la de las personas sin hogar. El modo de vida de estas personas que están sufriendo las consecuencias directas de la crisis de la forma más terrible refleja el aspecto más extremo de la precarización que se está extendiendo de forma absoluta en la sociedad. Y la situación permanece inalterable según lo demuestran los últimos estudios. En concreto, en Álava, Bizkaia y Gipuzkoa son, como mínimo 1.836 las personas que viven en la calle o en los albergues, residencias o servicios de los servicios sociales. La mayoría son hombres, pero tal y como ha afirmado recientemente la Plataforma por la Inclusión Residencial y a Favor de las Personas sin Hogar, Beste Bi, el número de mujeres está aumentando de forma notoria. Las personas menores son el 7,3 %.

Ante esta situación es necesario tomar medidas, y hacerlo de forma coordinada e integral. Para ello, como en más de una ocasión han subrayado los agentes, falta una estrategia integral que se inserte en el plan integral para la inclusión.

En ese sentido, es necesario recordar las resoluciones aprobadas, a iniciativa de EH Bildu, y acordadas con el partido que sostiene al Gobierno, por el Parlamento el 7 de noviembre de 2014, en el debate monográfico sobre la estrategia integral a desarrollar por el Gobierno para hacer frente al paro y a la pobreza:

"El Parlamento insta al Gobierno, a fin de completar el sistema vasco de protección social, a que elabore y remita al Parlamento, en el plazo de un año, en colaboración con los agentes sociales, una estrategia integral para cambiar de raíz la situación de las personas sin hogar".

"El Parlamento insta al Gobierno a que remita al Parlamento, antes de finalizar el primer trimestre del año 2015, el nuevo plan y estrategia para la inclusión social activa, elaborado con los agentes sociales y con los sindicatos, a fin de completar el sistema vasco de protección".

Por todo ello, presenta la siguiente proposición no de ley.

PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento insta al Gobierno a que remita al Parlamento, antes de que finalice el año 2015, las resoluciones aprobadas el 7 de noviembre de 2014, en el debate monográfico sobre la estrategia integral a desarrollar por el Gobierno para hacer frente al paro y a la pobreza, es decir, la estrategia integral para cambiar de raíz la situación de las personas sin hogar y el nuevo plan y estrategia de inclusión activa.

Vitoria, a 23 de noviembre de 2015

Eva Blanco de Angulo

Parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu

